

Kanalak:

Gure aplikazioa nolakoa den badakigu baina gauza garrantzitsuenetariko bat flata zaigu, nola eramango dugun aplikazioa ezagutzera gure bezero potentzialek hau aurkitzeko, hau da, zein kanal erabiliko ditugu jendea gure aplikazioa ezagutzeko.

Lehenik eta behin, kanalik nagusia mugikorrerako aplikazio bat sortzea da. Gure aplikazioa Androiden eta iOSen deskargatu daiteke, modu honetan jende gehiagok euskal kulturaz gozatu dezake. Bigarren kanala, webgune bat sortzea da. Webgunean aplikazioari buruzko informazio osagarria agertzen dira, webgune horretan guri buruzko informazioa, ekintza kulturalari buruzko egutegiak eta aplikazioa erabiltzeko irizpide batzuk eskaintzen ditugu. Hirugarren kanala, sare sozialek garrantzi handi dute gure proiektua bezero potentzialei eskaintzeko, baina kanal honek batez ere gazteengana hurbiltzen gaitu. Azkenik, aplikazioari buruzko kartelak eta QR kodeak jarriko ditugu hiri eta herrietako hainbat lekuetan, adibidez kultura-zentroetan edo kaleetan.

